Aurten, 2011n, bai Casares Kultur Etxeak bai Altzako Historia Mintegiak 25 urte betetzen dituztenean, Altza Hautsa Kenduz bildumako zenbaki berri bat argitara aterako da, 1988az geroztik osatzen aritu den bilduma izanik.

"Altzako historiari hautsa kentzeko" helburuz sortu zen eta 22 urteotan 100 kolaboratzailek baino gehiagok parte hartu dute bertan artikuluak idatziz.

Era guztietako gaiak hartu izan ditu barnean, batetik, hasierako asmoari eutsiz, Altzako historia berreskuratu eta ezagutzera emateko nahiak bultzatuta eta, bestetik, bertako oraingo egoera kontatu edo bere etorkizunari buruz hitz egiteko.

Hortaz, Altzatik edo Altzari buruz sortutako arduren adierazpideetako bat dugu hau, eta ziur gaude helburua lortzen ari dela: altzatarrek bertako historiari buruz duten ezagutzan sakontzea eta bide batez komunitate hau balioestea eta bertakoak ez direnei ezagutzera ematea.

Aurreneko zenbakiak 6 artikulu bildu zituen. Azken honek, berriz, 25 artikulu ditu, beste hainbat kolaboratzailek idatzitakoak, ekimen hau urteak joan ahala ahultzen joan beharrean sendotu egin denaren seinale.

Oraingo honetan bildu diren edukien artetik hainbat gai ditugu aipatzeko, besteren artean, aurre-historia eta oraingo historia, gerra zibilean gertatutako pasadizoak, altzatarrek beste lurralde batzuetan bizitako esperientziak, hausnarketa literarioak eta literaturaren ingurukoak edo Larratxori buruzko argazki bilduma.

Hala, gure poza adierazi nahi dugu lan jori honengatik, baita guztiei eskertu ere, irakurle eta egileei, lan hau gauzatzeagatik. Horrexegatik, datozen urteotan hobetzeko parte hartzen jarraitzera animatzen zaituztegu, eta azkenik ospakizun une berezi honetan desio bat plazaratu nahiko genuke:

Altzan beste 25 urtez elkarlanean jarraitzea!

DONOSTIA KULTURA

*Este año 2011, año en que tanto Casares como Altzako Historia Mintegia cumplen 25 años, se publica un nuevo número de la colección Altza Hautsa Kenduz, una colección que nos acompaña en este recorrido desde 1988.*

*Nació con el objetivo de "desempolvar la historia de Altza" y en estos 22 años han publicado sus artículos más de 100 colaboradores.*

*Ha dado cabida a todo tipo de intereses, por un lado, fiel a su espíritu inicial, el de rescatar la historia de Altza y darla a conocer, y por otro, el de relatar su presente o manifestarse sobre su futuro.*

*Es pues, una vía de expresión más de las inquietudes que nacen desde Altza o sobre Altza, y que estamos seguros de que ha conseguido, no sólo ahondar en el conocimiento que los altzatarras tienen de su propia historia sino también poner en valor y dar a conocer esta comunidad a personas ajenas a ella.*

*Aquel primer número contó con 6 artículos, este último cuenta con 25 artículos escritos por otros tantos colaboradores, lo cual demuestra una vez más que esta iniciativa, lejos de desgastarse en estos años, ha ido consolidándose.*

*Entre los contenidos que lo forman en esta ocasión hay apuntes que tratan desde la prehistoria hasta la historia reciente pasando por episodios significativos como la guerra civil, experiencias también de altzatarras por otras tierras, reflexiones literarias y en torno a la literatura o un álbum fotográfico sobre Larratxo.*

*No nos queda más que congratularnos por este prolífico trabajo, agradeceros a todos, lectores y autores, el haberlo hecho posible y animaros a seguir colaborando para mejorarlo en los próximos años.*

*Y por último, en este momento especial de celebración, queremos formular un deseo:*

*¡que en Altza sigamos trabajando en colaboración otros 25 años!*

*DONOSTIA KULTURA*